

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak jakinarazi du aire girotua segurtasun- eta kalitate-neurriak bete gabe instalatzen duten enpresak agertu direla

*Aire girotua horretarako gaitutako eta erregistratutako enpresek instalatu behar dute*

Lunes, 12 de agosto de 2013

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuak, ikusita aire girotua energia-eraginkortasun, segurtasun eta kalitate neurri egokiak bete gabe instalatzen duten enpresak agertzen hasi direla, era horretako instalazioek zer baldintza bete behar dituzten azaldu du.

Lehenik, aire girotua Departamentuan bertan erregistratutako eta gaitutako instalazio-enpresek jarri behar dute, segurtasuna, kalitatea eta errendimendua bermatzeko. [Industria-erregistroaren](#) arabera, Nafarroan 134 enpresa daude gaituta.

Bigarrenik, instalazioak martxan jartzeko, titularrak instalazio-ziurtagiria eskatu behar dio enpresari; gainera, enpresak ziurtagiria [eraikinetako instalazio termikoen erregistroan](#) sartu behar du, instalazioa egoki kontrolatzeko eta segimendua egiteko.

Hirugarrenik, aire girotuko instalazioaren titularrak Eraikinetako Instalazio Termikoen Araudian (EITA) instalazioen erabileraren eta mantentze-lanen gainean ezarritakoa bete behar du. Besteak beste, instalazioaren dokumentazioa gorde behar du, konponketak eta mantentze-lanak egin behar ditu eta instalazioa behar bezala zaindu behar du, epe hauek kontuan hartuta:

-Instalazioen potentzia termikoa 5kW-koa edo handiagoa bada (potentzia instalazio-ziurtagirian dago zehaztua eta gailuaren energia-etiketari agertu behar du) eta etxebizitzetan jarrita badaude, lau urtean behin egin behar da mantentze-lan prebentiboa; beste leku batzuetan badaude, berriz (bulego, denda, ostalaritza-establezimendu eta abarretan), mantentze-lan prebentiboa bi urtean behin egin behar da.

-Instalazioak 12 eta 70 kW artekoak badira eta etxebizitzetan badaude, prebentzio-lan horiek bi urtean behin egin behar dira, eta beste leku batzuetan badaude, berriz, urtean behin.

-Azkenik, 70kW baino gehiagoko potentzia termikoa duten instalazioen mantentze-lana hilero egin behar da eta, beraz, titularrak gaitutako enpresarekin mantentze-lana egiteko kontratu bat sinatu behar dute.

Ikuskaritza teknikoari dagokionez, 12 kW baino gehiagoko potentzia duten aire girotuko instalazioetan lau urtean egin behar da.

Azkenik, aire girotuko instalazioen titularrak instalazioaren, mantentze-lanen, konponketen eta ikuskaritzen dokumentazio guztia gorde behar du. Baldintza horiek ez betetzea arau-hauste administratiboa izan daiteke.